









ATA  
1322  
AMA BIRGINA  
ICIARCUAREN



CONDAIRACHOA



AT.V.  
1327

COMMISSION

M-5019  
R-1408

A.T.V.  
1327

# GUIZADIAREN

ETA BATEZ ERE

## ICHAZ - GUIZONEN

IZAR EDER ETA LAGUNTZA BENETACOA DAN

**AMA VIRGINIA IZIAR-COAREN**

## CONDAIRACHOA

Bere Bederatziurren eta canta batzuequin.

P. VICENTE AIZPURUC

LABURTU ETA ZUCENDU

ETA

P. FRANCISCO MARIA GOROSTEGUIO

EUSCARARA ITZULIA.

---

Bear diran haimenaquin.

---

TOLOSAN:

FRANCISCO MUGUERZAREN MOLDIZTEGUIAN  
1884-garren urtean.

## BAIMENA.

Aztertuae izan diran ezquero gure aguinduz, onaco izen au duten escu-escribuac «*Reseña histórica de Nuestra Señora de Iziar*» eta «*Ama Virjina Iziarcoaren Condairuchoa*» eta ez dagoan ezquero beretan, irizpenac dionez, Fede, iracaste guciequico eta oitura onen contracoric ecer, eman ten degu baimena, guri dagoquigunez, aitatu diran escu-escribuac molderatu ta arguitara emateco.

Onela dioquizat zere ezagüera, atseguin eta osteronzeraco.

Jaincoac urte ascoan gorde zaitzala—Vitoriatie 1884 garren urteco Mayatzaren 25an.

Vitoriaco Apaiz-nausiac: D. Vicente Aizpuru-tar jaunari. =Azpeitian.

## OARQUERAC.

1. Vitoriaco Apaiz-huru Jaunac 40 eguneco barca-menac edo indulgenciac eman ditu, jayeraz liburucho onetan iracurtzeagatic.

2. Itzuleac nai zuen eran, Condairucho ta Bedera-ziurren onetan gaztelaniaren escribamodu edo ortografiya ezarri da, bi letracho *z* ta *i* oyez campora.

3. Paperecho, can'a, izneurtu, pasa, iduri escapulayo eta beste Iziarco Virjina eta Errumeriaren oroitzaco gauzac, Iziar-en bertan, Deban, Tolosan, Azpeitian eta beste errietan salgai arquitzen dira.



---

---

## ITZ-AURREA.

---

Liburucho onetan laburtua ipintze-  
co asmoa det, Ama Virjiña Iziarcoaren  
aguerpenaren gañean, Debaco Vicario  
Jann D. Pedro Jose Aldazabal-ec ar-  
retaz bildutaco berri baliotsuaquin  
1767<sup>an</sup> esribitu zuana; ceñac izcuntza  
ederrean señalatu cituan Aita chit be-  
neragarri, Frai Jose Jesus Maria eta  
Araquistain, Carmelita oñutsetacoen  
Definidore General eta Provincial ja-  
quintsu-prestuae utzi ciozcan escues-  
cribuac. Baña menturaz galdetuco zat:  
¿Ez da liburucho bat Tolosan argui-  
ra emana 1866-garren urtean? Eguia  
da; baña aiñ laburra da ura ecen, esan  
diteque beraren eguillearen asmo ba-  
carra izan zala, ezagüera labor bat ema-  
tea, itzaurretzat serbitzeco, Aldazabal

jaunac berac euscaraz esribitu eta arc  
erderara itzuli zuan bederatziurrena-  
rentzat. Nere asmoa da, ematea euscal-  
dunai batez ere, eta fededun guziaz  
Ama Virjiña Iziarcoaren aguertze mila-  
grotsuaren, eta beraren bitartez eguin-  
daco mirari lenen edo principalenen al-  
ditudan berriac, laburtasunac eroriera-  
zotzen ez nauala illuntasunean; baña al-  
deguiten dedala ere lucegui izatearen  
peligrotic.

Esquintzen diot lan chiqui au Ama  
maitagarriari, ceñaren debocioa zabal-  
tzea dan nere deseoa, erregutzen dio-  
dala artu dezala amorioaren señale bat  
beccla, eta bedeinca dezala, nere espe-  
ranzac utsean gueratu ez ditezen.



## LENENGO BURUA.

Aguerpenaren condaira edo historia,  
lecuaren gañeco itz batzuen  
ondoren.

---

**A**rquitzen da Iziar-co erria Anduz  
mendiaren malcarrean, eta Azcoiti alde-  
tic Lizarreta-co mendiaren azpian; eta  
zan Gaztelaco D. Sancho 4.<sup>ren</sup> erreñal-  
ditic Monte real ceritzan erria; baña  
D. Alfonso XI<sup>n</sup> erregueac eman cien  
licencia an bici ciranai, Debaco errira  
bizitzera joateco; eta arrezquero Monte-  
real-ec galdu cituan bere fuero eta de-  
recho guciac, eta guelditu zan betico  
Debaren mendean. Ala bada, Iziar-co  
erria deitzen dioguna arquitzen da, lecu  
eder batean, itsasoaren alderonz bista

chit ederraquin, eta dago Debatic legua erdi bat baño gneiſiagora, eta Zumaya-tic legua ta erdira becela; eta dago jendez betea beste euscal-errien erara, eta jende oriee gueyenac necazariac diralariac, baditu cembait eche bilduac, eta baserri asco banatuac eta urruti.

Iziartarren prestutasunaz eta erlijioaz itzeguitea, aitatu dan aguerquenaren demboran, eta orain ere bai, da dembora galtzea; batez ere obracho au eseribitzen dedalarie necazarien birtuteac ongui ezagutzen dituen euscaldunen-tzat.

Oitura on oee, dnda bague muguitu zuen Virjiña chit santa aguertzera nescach gazte on bati lecu hacarrean.

Iziar-co erriac eche bilduric etzuan demboran eta bere lurrean basarri banatuac baicic etzuanean, eijoan, gaur Eliza arkitzen dan lecutic, nescach gazte bat, bere bertute eta sencildeaga-

tic, bere erritar guciac errespetatzen zuena; eta orra emen nun icusten duan sasi eta aranzan artean Andre chit eder bat, distiaduraz betea, besoetan aurpreciotsu batequiñ. Bereala aturdituzan nescacha; baña beregandu zanean, galdetu cion Andreari nor zan, eta cer nai zuan. Orduan Imajiña sagraduac idiquiric bere ezpañ chit garbiac eranzun cituan itz oec. «Ni naiz Aingueruen »Erreguiña Maria, eta nere borondatea »da eguin daguidazuela eliza bat lecu onetan, ceñean atseguin det egotea eta »beneratua izatea nere Semcarequiñ» Aguindu ere cion esan ceguiela leyalqui bere erritarrai, icusi eta aditu zuana, bertatic equiñ zeguioen eliza alchatzeari.

Bereala eguiñ zuan nezcachac Andre eder arc encargatu ciona; baña beraren tolescabe eta sencildeac sinisgarria eguiten bazuen ere berac ciona, etzioten

bereala sinistu; eta Aldazabal jaunac dio ecen, Iziartarrac beren beguiz icusi nai izan zuela eguia zan edo ez nezcachac ciona, eta irichirie aguerpenaren lecura, icusi zuela eguia zala nezcach zorionecoac segurutzat esaten zuana; bada arqutu zuen Jaungoicoaren Amaren Imajiña chit preciotsu bat, be-soctan aur eder bat zuala, ceña, arrosa guciz usaigozoduna becela, cegoan sasi eta aranzen artean; eta batzuec dioe ecen, aldi onetan Imajiña chit santac itzeguin ciela, bera icustera joan cira-nai, agnintzen ciela eguin ceceela eliza bat bera adonatu eta beneratzeco; nic obeto sinisten badet ere, mesede au etzala aimbesteri eguiña izango, eta au bera ateratzen da jende acn empeño eta aleguiñetic, eliza beste lecu batean eguiteco, guero esango degun becela.

Naiz izan cedilla bada, jende aec izan ceceela ceruetaco Erreguiña icus-

tearen atseguin neurribaguea, eta adit-  
zeco beraren ezpañ chit garbi eta virjin-  
darrelatic esan dan encargua; edo naiz  
nezcach zorionecoaren itzen firmetasu-  
nac sinisterazo ceguiela bere erritarrai,  
esaten zuanaren eguia; cierto dana da  
ecen, eracequiric beren fedea, pozez  
deadarcatu zuela Virgiana chit santa  
beren Ama chit gozo eta amparatzallet-  
zat, eta prestatu cirala alchatzeco a-  
guerpen milagrotsuaren oroipena, se-  
cula gucietan iraunerazo bear zuan oroi-  
carria.

## BIGARREN BURUA.

Aguerqueraren dembora.

**E**z daquigu gauza cierturic segurut-  
zat esateco, cer demboratan guertatu

zan Ama Virjiña Itziar-coaren aguerpena. Anciñacoetatic guganaño irichi diran berriac igoerazotzen due aguerquera an dembora chit urruticoetara, eta Aldazabal jaquintsuac sendotzen du iritzi au, milagroaren oroipen mututzat serbitzen duan eliza andigoyaren alchatzearen gañean ematen dizquigun berri chit arretaz bilduaquin. Anciñaco condaira edo historiaren itarriric lenena diran lenagocoetatic gueroicoetara datocen berriac adierazotzen digüe dudaric gabe, cer lecutan aguertu zan Virjiña chit santa, eta cer encargu eman cion nescach zorionecoari, ceña izan zan alha cedilla beraren onran lecu artan bertan eliza bat. Beragatic, probatzen badegu elizaren anciñatasuna; probatua guera-tuco da Ama Virjiñaren aguerpenarena ere.

Guiatzat serbitzen digun escribitzalleac esaten du gai onetan ceen, gu-



rasoetatic umeetara beti sinistu dan eliza onen anciñatasuna, sendotua izan zala pruebaquin, orain berreun urte auci batean, ceñaren papel, Debaco zucelecú edo archiboan arquitezen diranetan iracurtzen diran itz oec. = «Iziar-co Santa Mariaco eliza chit anciñacoa dala, »eta gucien iritzian Iziar-co Santa Maria-co eliza au zala eta izan zala lenengo ama-eleiza edo parroquia eta alchatusa izan zala, Iziar, Deba, Arroa eta Mendaroco lur eta batzarre edo »Universidade gucia baño lenago.»

Itz oetatic ateratzen da eliza alchatusa izan zala Iziar, Deba, Arroa eta Mendaro-co erriac baño lenago.

Orain bada, paretzen ditugula emen 1531-ean asitaco era edo demboraldico garagar-illaren 24-ean, Erregue D. Sancho IV garrenac Valladolid-en emandaco erabaide edo despachu errealaren itzen batzuec, probatua utzi-

co degu esaten degun aguerpena dem-  
 bora ura baño lenagocoa dala. Itz  
 oriee dioe onela: «Guipuzcoan arqui-  
 »tzen dan Iziar-co guizon prestuai on  
 »eta mesede eguiteagatic, aberatsagoac  
 »eta gordeagoac izan ditecen, eta obeto  
 »serbitu algaitzeen, ontzat damagu eta  
 »aguintzen degu Montereal izan dezala  
 »icena. Orrez gañera aguintzen degu  
 »Vitoriaco fuero edo legueac izan dit-  
 »zala. &.» Alaco eran non, contuan idu-  
 quiriec España-en era edo Cesar-ena ar-  
 tu zala 38 urtetiec Jesucristo baño lena-  
 go, ateraco da aguerpena guertatu zala  
 Jesucristoren era edo demboratic 1294  
 urte baño lenago.

Baña Iziarco eliza chit anciñocoa da-  
 laren prueba duda-ezgarria da Pamplona-  
 naco Eliza santan gordetzen dan papel  
 bat, ceña eguiña izan zan 1027-an Aita  
 Morel-ec Nafarroaco guertaeren 1.<sup>o</sup>  
 liburuan probatzen duan becela: Papel

orretatic ateratzen da ecen, arrasaturic moroac Iruñ edo Pamplonaco Eliza Santa 714-an, paratu zala Eleiz nagusia edo Catedrala Leire-co bacartegui edo monasterioan, eta ala seguitu zuen eunca urte batzuen bitartean, azturic Obispaduco mugac, eta berari cegozquion elizac.

D. Sancho erregueac erremediatu nai izan zuan gaitz au, eta batu zuan Nafarroaco gaucen berri cequien guizonen conseju bat, ceñac conseguitu zuen bilatzea Obispadu anciñaco muguen eta arrazaren demboran ciran elizen berri ciertoa, probatzen dalaric berri oecquin, Iziar-co eliza bazala 714-urtean.

Da esatea ecen, segurutzat eman dezaquegula aguerpenaren dembora 714-garren urtea baño lenagocoa dala.

Esaten ere du Aldazabal jannac ecen, janci nairic 1690-an imajiña, obeto apaintzeco, orduraño eguin etzana bera-

ren beneracioagatic; arqutu zala tunica zuri chit mee bat, ceñarequin ce-goan jancia, eta ceñarequin aguertuzala esaten dan, gucia escribitua; baña letra aiñ anciñacoacquin, non eciñ atera izan zan cer esan nai zuten.

Contatzen ere da gure anciñacoacgatic, oraindaño Iziar-co eliza dala leguasco inguruan eguiña izan zan laugarrena, Evangelioa otsandetu edo publicatu zanetic.

## IRUGARREN BURUA.

Lenengo eliza alchatzcan guertatu ciran milagroac, eta eguin diran eliza onen berritzeac.

**L**enengo buru edo capituloaren acaberan utzi ditugu Iziartarrac eguindaco

prestaerac, equiteco fede eta bero ice-  
quiarequin eliza eguitari; eta icusi de-  
zagun nola eguin zuten.

Au nola eguin erabaquitzeo, batu ci-  
ran beren jaquinde eta besoacquiñ obra  
au eguiteco lagundu zezaqueen guciac,  
eta autu nai izan zuten Ama Virjiñac se-  
ñalatu zuan lecuaz ez, baicic beste bat,  
ura estua eta desberdiña iruditu citzaie-  
laco, eta ipiñi cituzten beguiac Zabaleta  
deitzen citzayen batean, ceña bere ice-  
nac adierazten duan becela, zan zabala-  
gua. Au erabaqui ta dembora asco ba-  
ño len, baciran Zabaletan gayac eta be-  
soac lanai equiteco; baña guichi costa  
bazan gayac biltzea, guchiago costa ci-  
tzayen Aingueruai aec ganaz eramatea  
beren Erreguiñac señalatu zuen lecura.  
Berriz eta berriz au bera guertatu zan;  
eta guizon gaiztoen batzuen obra zala-  
co ustean, ipiñi cituzten zayac, lecuaren  
zelatan egoteco, eta guertatu ciran gu-

ciz arrituac, icusi zuenean beren beguiacquin beren lanac deseguitea guchi costatzen citzayela Ainguernai. Ezaguturic atzenean beren [utseguitea, ceña, anciñacoetatic guganaño irichi danez, etzan castigu bague guelditu; Iziartarren beso indarsuac asi ciran, araco eliza chiqui aren zimenduac botatzen; onec alabaña, oroiaz bear zuan aguerquera, eun urte asco ta ascuac igarota-ere.

Dembora guchian bucatua gueratu zan Imajiña preciotsuaren lenengo eliza; eta dembora guciac errespetatu due Imajiñ au, bere edertasuna galdu gabe. ¿Zeñen obra dá Imajiña au? Gure anciñacoetatic guganañoco berriac ir-tenerazotzen dute ispiritu zorioncoen escuetatic, eta au sinisgarria eguiten du Imajiña onetan icusten danac.

Gaya da chit pişua eta trincoa, eta ez daqui ñore cerezcoa dan; arpeguia da chit ederra eta liraña, eta dembora

berean andigoyez eta errespetoz betea; colorea cerbait bezchoa, anciñaco beste Imajiña aguertuacquin guertatzen dan becela; baña ez araco, azcoz dembora guchiagoco batzuetan, icusten dan azal beltz ura: copeta da zabala; becintac chit ederqui arcueratuac, eta aoa guciz chiquia. Arpeguian dauca señaie edo achaparcada chiqui bat, dirudianeiz debocio erabague batec eguiña; eta dirudi, beraren edertasun gucizcoa gueitzen duan oreñ bat. Buruan dauca coroi erreal bat, gai berez eguiña; eta dago jargoie edo tronu urreztatu batean eseria. Guciari batean beguiratzen zayola, da gauza miragarria; ala nola besoetan daucan aurra, ceña dan gai berezco pusca aparte bat.

Asieran eguin zuten eliza chiquia eta costu guchicoa izan bear zuan; zergatic guero, noiz eciñ señalatu baditeque ere, andiagotu zuen.

Baña obra berria ere, etzuan izan bear Mariaren debotoen fede acitzen cijonaren gustocoa; eta 1500.<sup>an</sup> guichi gorra bera bucatu zan orain icusten dana, eta nolacoa dan esatera goazena. Obra añ andigova da, non arriturie uzten dituan bera icustera dijoacen persona chit asco; ecarri dezaque regularie onen pruebatzat Garibay condairatzalle ezaguna; ceñac ematen duan au obra galant-eder tzat. Eliza da chit andia eta zabala, gucia arri landuzcoa, ederqui cantalautua, eta otoigope edo arcu bat bacarrecoa. Erretablo nagusia da apaiñgoya eta chit ederqui eguiña: beraren erdian eta parteric lenen edo garaiñean, sagrañioaren gañean dago paratua Imajiña milagrotsua. Aldare nagusiaz gañera ditubeste bost aldare, eta sacristia arte andigoico bat. Torrea, dembora batean zan liraña; baña oñazcarrac bi



bider lurreratua, orañ icusten dana ez da len izan zanaren itzala baicic.

Esan degun bezela, Imajiña sagra-  
dua dago aldare nagusian Sagrarioaren  
gañean, eta dago gordea iru cortiñac-  
quin; eta ez du au iñoiz ere iñore a-  
guertzen, apaizen batec estolarequin eta  
argui eracequiarequin baicic. Soñecoac  
aldatu bear zaizcanean, apaizac jechitzen  
due bere jergoi eto tronitic, eta ori be-  
ra eguiten da bera berriro jasotzeco.

Ez du iñore gogoan Imajiña milagro-  
tsua bere elizatic ateratua izan danic  
1766.<sup>co</sup> urteraño, ceñean eramana izan  
zan lau apaizen bizcarretan Debara, be-  
ra arrasatzen zuan izurri edo pestea-  
gatic, ceñac aldeguñ zuen dembora gu-  
chiren barruan.

Aguirian egoten da egun guzian bera  
eliz-pesta nausietan eta Ama Virgiñaren  
gañeracoetan, elizaco eguintza eta fun-  
cioac dirauten artean.

Ipiintzen ere da aguirian bera bene-  
ratzera eta onratzera dijoacenac encar-  
gatzen dituen Meza otsandico edo sole-  
neetan eta errezatuetan.

## LAUGARREN BURUA.

Mariñelen eta itsastarren Ama  
Virjiña Iziarcoaren Cofradia  
chit anciñacoa.

**D**embora chit urrutietara igoerazot-  
zen du gueyenen iritziaç itsastarren  
Ama Virjiña Iziarcoaren Anaidi edo Co-  
fradiaren asiera. Gaztelaco Erregue  
D. Juan 2.<sup>ac</sup> eman cien Cofradia onen  
erreguelai leguearen indarra, eta ont-  
zat eman eta bedeincatu cituan Aita  
Santu Benedicto 14.<sup>ac</sup>, ceñec eman zuan  
indulgenci edo barcacio oso bat Cofradi  
onetaco sarreraren eguneraco, confesa-

tu eta comulgatuta; barcacio osoa eriotzaco orduraco no onai ill ditezela cofradi onetan daudenac; barcacio osoa confesatu eta comulgatuta, Iziarco Eliza Santa bisitatzen duenentzat oracio eguniaz Eliza Ama Santaren goratzeagatic, erèjia sustraitic ateratzeagatic, erèje eta fedebagnean conversioagatic, Principe Cristauen arteco paqueagatic, eta alcar ondo artzeagatic, eta Erromaco Aita Santuaren osasunagatic.

Indulgenci edo barcacio oec biac emanac daude betico. Gañera ematen diezte zazpi urte eta zazpi bider berrogei eguneco barcacioac, urteberri egunean, Jaunaren igoerarenean, uztallaren lenengo igandean, ceñean eguiten dan esan dan Elizan, Ama Virjinaren Sortze chit garbiaren festa, eta urriaren 2.<sup>co</sup> Aingueru Santuen egunean, confesatzen eta comulgatzen diranai.

Ontzat artu bitza iracurleac nere izga-

yari ez dagozcan itz bi. Aldazabal jau-  
nac dio ecen, beraren demboran ere, uz-  
tallaren lenengo igandean eguiten zala  
Iziarco Elizan pompa andiarequin, eta  
ara joaten ciran erri ascotaco gende  
chit ascorequin, Ama Virjiñaren Sortze  
chit garbiaren festa. ¿Zer esango degu  
gaur? ¿Oztu dala festa ots-andico one-  
tara joan oi ciran erri actaco gendeen  
fedea? ¿Erri oec galduaz dijoazela, be-  
ren aurrecoen oitura erligiotsuai diela,  
beti esan izan dan amorioa? Erantzun  
beza iracurleac, eta considera beza bere  
ardura-baguequeria.

Cofradi onetan sartuac eguindaco er-  
ruquizeo edocẽ obragatic señalatua  
dago iruroguei eguneco barcacioen sa-  
ri edo premia. Beste aimbeste egune-  
co barcacioac emanac dauzca Benedic-  
to 14.<sup>na</sup> berac, Ama Virjiña Iziarcoa-  
ren tesoro edo gordairuco Cofradian  
daudenentzat, beraren Mezaren bat en-

tzuteagatic, edo joateagatic berac eguiñ oi dituan elizaco funcioetara, edo erruquizco edocein obra eguiteco izan oi dituan batzarre edo Congregacio aguirico edo ezeutueoetara, edo eguiñ oi dituan procesioetara, edo illac enterratzera, edo Sacramentu chit Santuari, gañoren batentzat darameenean, lagun eguitea, edo au ecñ eguiñie, errezatzen badue gaisoagatic Aitagure bat eta Ave Mari bat, chincharria aditzean.

Era berean Benedicto 14.<sup>ac</sup> berac señalatzen du barcacio osoco aldaretzat, Iziarco Eliza Santaco aldare nagusia, Santu gucien zortziurren guciraco eta urteco astelen gucietaraco, an edoceiñ apaizec meza esan ezquero, cofradia onetaco edocein defuntugatic, irabaci dediñ barcacio osoa beraren animarentzat. Lucegui litzaque emen paratzea Obispo jaunac cofradi edo anaidade onetan sartuai emanic dauzqueen bar-

cacio contaegarriac. Gauza sinistezgarria dirudi, cofradi bat bere listan ipiñiac daudenai graci añ ugariac ematen dieztena, Benedicto 14-garrenaren Bulda batec bedeincatua, eta Gaztelaco Erregue D. Juan 2.<sup>ac</sup> ontzat emana, izatea orain, noizbat izan zanaren itzal uts bat. Honratzen ditu gure aur-recoac, ipiñi izana cofradi bat Aita Santuac eta Erregueac arreta añ andia izan ciona; baña honra au biurtzen da deshonra, aen ondorengoentzat, oec aztutzen diranean onelaco obretaraco aen ardura andiaz.

Eta, ¿cer obligacio ipintzen diezte, eta cer escatzen die cofradi onen erreguelac, bertan sartzen diranai? Illean beñ confesatu eta comulgatu, Errosarioaren parte bat egun-oro errezatu, sarreran erreal bi beste pagaquizunic bague. Asieran escatzen cituen erreguelac cem-

bait gauza, ceñacgatic eciñ guciac sartu citezquean cofradi onetan; baña 1743<sup>dic</sup>, ceñean ipiñi zan cofradi berria Ama Virjiña Iziarcoaren tesoro edo gordairuco Cofradiaren icenarequiñ, onen parte izan ditezque era gucielaco personac, naiz izan ditezela Provinci eta Erreñu arrotzetacoac.

Cofradi onen festa lenena eguiten zan Ama Virjiñaren Cernraco jasoeraren zortziurreneco igande eta asteleanean, biltzen cirala festa onetara gendeasco Bizcaitic eta Francico portuetatic ere, eta sei leguaz Iziarren inguruc cofradiaco guciac, joan bear zuen, ara urrezco florin-erdi baten penaren azpian, 5<sup>ren</sup> erreguelac aguintzen duan becela. Iziartarrac ipiñi oi zuen festa onetan arbola chit luce bat Elizaco plazachoan lore eta guirlanda ascorequiñ, eta arbo'a onegatic itsasguizonac ematen cituzten, cillarrezco eun erreal, eta

batzuetan gueyago ere bai, Imajiña Sagradua apaintzeco, segurutzat ceuqueela zorionecoa zala arbola ura ipiña ceucan oncia, eta gañeracoac artzen cituen beraren ezpalac fede eta confianza sinistezgarri batequiñ. Gueroago aldatuzan festa onen eguna, eta orañ erriac eguiten du, Abostuaren laugarren igandetic urrengo astelenean aldatze-bague eguiten dan, festa-gastu gucien costua.

Capitulu edo buru au bucatzeco, ecin utzi ditzaquet emen ipiñi bague Aldazabal jaunac Cofradi onen gañean 1767.<sup>ac</sup> escribitzen cituen itz batzuec. «Barcacio aiñ ugariequiñ eta Imajiña chit milagrotsu onenganaco cristau fiel guzien devocio edo amodio andiarequin sartu dira beraren cofradi berrian gende chit asco, ez bacarric Deba-aldeco erri gueyenac, baicic beste erri eta Provinci arrotzetacoac ere; eta biltzen dira



Ama Virjiñaren egunetan eta urteco beste festa egunetan, elizaco funcio eta sermoyetara, eta esperatzen da urte guchi barru chit-asco sartuco dirala cofradi onetan, eta asco gueituco dala Maria chit Santaren Imajiña Sagradu onenganaco dovocioa; bada uste degu onetaraco bear diran aleguiñac eguingo dituela beargai au bere contura dauqueenac; mundu gucian zabaltzeco Itsasoco izar Soberandi onen mirarien berriac: ala uste degu Imajiña Sagradu onen erritarren amodio eta devociotic.

## BOSTGARREN BURUA.

Ama Virjiña Iziarcoaren bitartez  
eguin diran milagroac.

**I**tsasoco izarra deitzen zayo Ceruetaco Erreguiñari, eta batez ere onela deitu

bear zayo Iziarco Imajiñari; ceñac aguertu nai izan zuan mendi batean, nondic ederqui bere azpian daucan orren parte andi bat: Bere jargoi edo tronutic ederqui zaitu ditzaque baga indartsuac astintzen dituen, eta ascotan laguntza Jaungoicozcoac baicie arquitzen ez dituen mariñelac eta itsastarrac; eta ala eguin du, guertaera ascoren artetic, esatera goazen batzuetan.

1700.<sup>ren</sup> urtea zan guchi gora-bera, Passayaco portutic Amsterdam-eraco irten zanean onci bat, aguintari zuala Guetariaco seme, Geronimo Bengoechea Capitana, Giron Capitanaren icenez eza gutuagoa. Lana edo illez cargatua cij Joan ontzia; eta bertan cijoacenen asmoa zan, carga entregatuta, bereala joatea Terranova, baleen arrantzara; baña Inglaterra canal edo itsasartera irichi ciranean, ecaitz furioitsu batec galerazo cien bicitzaren esperanza gucia. Baciran

bost egun baguen jostaqueta eguiña cebillela oncia, aetan suric ere ezin iracequi zutela, eta bitartean bi onci ondartzen icusteac galerazi zien bicitzaren esperanza gucia. Cristauac ciran becella, oncian cijoacenac eguiten cituzten seguru, uste zuten eriotzaraco prestaeraco acto edo eguintzac; eta ona emen non Celedonio Zurbano ceritzan Debaco mariñel bat oroitzen da, bere cofrean ceducanaz. Ama Virjiña Iziarcoaren mantuaren pusca bat zan, orduan Vicario zan D. Juan Iziargandic alaja parebague eta erregalo preciotsu bat bocela, irichi zuana. Au aditzean Capitanac aguindu zuan Pasayaco mariñel guzien artean animotsu batec para cezala erliqui ura onciaren goyenean, promes eguiñaz barrica ta erdi lumera Ama Virjiña Iziarcoari erregalatzeco, libratzen bacituan eriotza seguru artatic, eta arrantza ona izaten bazan; eta edocein

moduz barrica bat, promes eguiten zutela mariñelac ere, Ama Virjiña bisitatzeco eta berari eskuerrac emateco. Paraturic erliquia ontziaren goyenean, asi ciran Salbea cantatzen, eta bucatu zuen baño lenago aldeguin zuan peligroac, eta deseguin zan ecaitza. Carga Amsterdanan entregatuta, aurrera eramanzuten beren biajea Terranovara, eta añugaria izan zan arrantza, non amabost egun bacarretan artu cituzten 700 barrica lumera, ceña zan onciac ecarri cezaqueen gucia. Beren echetara birritu ciranean, cumplitu zuten beren promesa, eramanz agüindu zuen limosna, ceñac balio izan zuan 45 escutu. Au da guertaeraren gañean Frai Joseph Jesus Maria eta Araquistañec contatzen duana, bear dan moduan idiquitaco billagunde edo informacioaren ondoren becelu, eguia jaquiñ cediñ bear dan eran.

1765.<sup>co</sup> ilbeltzaren 11.<sup>an</sup> biurtzen zan arrantzatic Debaco lancha bat, baña ecaitz izugarri batec utzierazo cien itzasoco zabalean mariñel bat Jose Antonio Arrue ceritzana, eta lancha guida-riaren illoba. Sartu zan lancha portuan, eta irten ciran beste batzuec, mariñel utzia socorritzeco, edo illa topatzeco: baña ezin arquite izan zuten, eta biurtu ciran aren billa joan ciranac naigaberie andienareguin.

Illunzetic ordu bira, aditu ciran dea-darrac arrandeguiaren parean, eta an arquite zuen ondarrean cetzala Jose Antonio Arrue. Eramanic echera, non tristura poz biurtu zan, contactu zuan guertatu citzayona era onetan. «Lanchatic campora бага batec bultzatua, irichinai izan nuan ur bazterrera, bideric laburrenatic; baña atzera bota ninduen itsascolpeac. Desconfiatzen nuan ya nere indarrac, dembora gueyagoan bagai go-

gor eguiteco, eta orduan eguiñ nion oracio labur bat Iziar-co Amari, aguintzen niola biotz guciareguiñ, bere Elizan bisitatuco nuala, eta bere aldarean meza bat ateraco ñuala; libratzen baninduan aiñ urrean icusten nuan eriotzatic. Equin nion nequezenetic, eta erraztu citzaidan itsasarte edo canaleco sarrera alaco eran, non irichi al-izan nituan ibayaz beste aldetic dauden arcaitzac, non seguruan jarri nintzan. Itsasoco peligroetic libre icusi nuan nere burua; baña otzac; bada narru gorrian arquitzen nintzan; eta orrez-gañera pauso bat eziñ emanac eguiten zuen icaragarria nere egoera. Ipiñi nuan berrriro nere confianza Ama Virjiña Iziar-coaren amparoan, eta zartu nintzan berriz ibayan, bera igueri pasatzeco, eta aleguiñ andiarequiñ alde ratu al-izan nintzan ur bazterrera, non deadarretara bildu zan gendea, eta arquite ninduten ondarrean nentzala, pauso bat eziñ emanic».

«Andic chit egun guchira cumplitu nuan nere promesa, Iziarra oñutsetan nijoala, eta ango gendeai contatu nien guertatua»

Beste milagro asco contatuco nituzque, baña orrela ez nuque complituco, asieran laburra izateco eman nuen itza.

Bucatzera noa, bada, nere lana; esanaz iracurleai, zer izan dan obracho an escribitzera muguitu nauana.

Ez nuan iñoiz pensatu aguirian escribitzalle becela aguertzea: baña bañuetan arkitzen nintzan Provinci onetaco erri batean, artean egun guchi ciralaric, penarequiñ utzi nuala Aranzazuco Comentua, eta itzeguiten nuala ango erromeriaren gañean, Iziar-co Vicario D. Ignacio Zubelzu, nere adisquidearequiñ; contatu zidan Iziar-co Ama Virjinaren aguerpen milagrotsua, eta beraren bitartez guertatu ciran mirariac. Lotsatu nintzan nere jaquiñezaz, eta artu nuan

asmoa, ez bacarric billatzeco gai oni ce-  
gozcan berri guziac, baizic baita oec  
zabaltzeco-ere euscaldunen artean. Asi  
nintzan nere indarrac neurtzen, eta za-  
lantzan egon nintzan; baña animatu  
ninduen persona neretzat chit errespe-  
tagarri batec, emanaz nere obrachoa  
esamiñatzeco itza; eta onec seguruan  
ipintzen nauala uste det, nigatic inore  
ecer esateco bide gucitic.

Gauza duda-baguea da prochugar-  
ria dala nere lana, cergatic prochu-  
garria da Mariari gloria emateco dan  
gucia; baña prochu au ascoz impor-  
tanci andiagocoa litzaque, iracequi bali-  
tezque lau onen bidez, euscaldunen  
biotz erligiotsuac, eguiteco orraco dem-  
bora oetan icusten diran acto edo e-  
guintza aguiri, guizonen gogoan betico  
gueratu oi diran orietaco bat. Ez det  
cer aitatu peregrinacio edo erromeria-  
ren icena; cergatic iracurleac onezque-



ro asmatu du. ¡Iziarra Erromeria! da eguiaz nere iduripen ederra. Ori da Iziarco Vicario jaun celotsuac aguerpenaren gañean eman eizquidan berri contuz-bilduac aditzean, nie sentitu nuan lenengo muguida; ori da dudaric-bague iracurlearen gogoa. Escuan obracho au ordu onean artzen duen guciac, ezarri-ric dauquee beren biotzetan ogueita amar milla erromeriguillec Aranzazun eman duen icusgai miragarria: ascoc uquituco eituen ondoreac, eta ez guchie naico dute acto edo eguintza aec berriztu ditezela, gure aurrecoac utzi ciguen fedea epeldu ez dediñ, eta zabaldu dediñ Amarie gozoenaronz beneracio eta debocia.

Aguertze milagrotsua izan zan Aranzazucoa; bada, icusi dezuen bezela, señale berac ditu ere contatu dizuedanac, Virjiñaren laguntzarequiñ.

Mariaganaco beneracioa eta debocia

zabaldu nairic, zuei itzeguiten dizuet gaur, nere euscaldun maiteac, batez ere oncicho ansicorretan Cantauriaco ichaso peligrotsuco baguetan zabilzatenai, eta Iziar-co Imajiña Santaren aurrean berari debocioz agur eguiñ-bague pasatzen etzeratenai.

Dembora guchi da oraíndic, guerra-co onciac itzultzen cituela beren proac Iziarco Virjiña-ganonz, eta agur eguiten ciotela artilleriaco salbacquiñ; baña oraíñ pasatzen dira arro eta isillie. Ez da orrelacoric guertatzen, zuen debocioarequin; baña ;nore daqui egunen batean aztuco ote ceraten zuen obligacioaz! Orrelacoric guerta ez dediñ, ez da gauza oberic esnatzea-baño gogo garbi oriee, Jaungoicoaren Ama-ganonz, eta ori ondoena conseguitzen da erromeri santuaquin.

Beste euscal-erriac ere ez dituzte aztu bear, beracquiñ Iziar-co Imajiña

Santac eguiñ cituen milagroac: berriztu bear dituzte araco beren asabac Ama Virjiñaren jayegunetan eguiñ oi cituzten eta aguerpenaren condaira edo historian guztoz iracurtzen diran erromeri aec.

Euscal-erri guciac parte artzen zuan eguintza aguirico oetan, eta Franciac, Nafarroac, Arabac, Bizcayac eta Guipuzcoac bacituen beren ordezc-coac aiatatu ditugun egunetan. ¿Cergatic oraiñ galdu dira oitura santu oriec? Cergatic oztu dan fedea, eta aztu gure anciñacoen usantza ederrac. ¿Nola conseguituco da aec lengo oñean berrizparatzea? Fede ori bici-erazo eta usantza aec oroiterazo ditzaqueen acto edo eguintza aguirien bidez; eta au bacarric iriñten da erromeriacquiñ, ceñac diran biotzac eritzen eta iracequitzen dituan probarria.

Iziar-co Izarra, ichasoco goitarguia eta itsastarren guidaria bada; da era berean, dabiltzanai salvacioco bideari seguitzeco, arguitu bear dien arguizuzia.

Bucatzeco, esan biar dizuet, eguiñ dezazuela aleguiña, cofradiaç izan dezan Benedicto 14.<sup>no</sup> becelaco Aita Santuac eta Gaztelaco D. Juan 2.<sup>na</sup> becelaco Erregueac eman cioten importancia, eta Cofradian sartu ditezen persona chit azco, ez bacarric Debatarrac, baicic ichasaldeco beste erri gucietacoac. Batayatu ezazue Ama Virjiña Iziar-coaren icenarecquiñ erri bacoitzean bertan arquitzen diran lanchetaco bat guchieuez: oracio eguizue Imajiñaren aurretic pasatzen ceraten guzian, eta peligroan arquitzen ceratenean esquiñi-guiozcatzue zuen burnac, adituac izango ceratelaco compianzarequiñ. Esaten degun erromeria, eguiten bada, izan dedilla dembora oetaco lenengoa, baña ez az-

quenengoa. Izan zaitezte zuen asabac  
 becelacoac:artu itzatzue aen oitura onac,  
 joaten ceratela Ama Virjiñaren jaiegunetan  
 Iziar-co Elizan eguiten diran funcioetara;  
 eta azquenic, eguizue zuen limosnaquin  
 andigoyac izan ditezela Iziar-co Virjiñaganaco  
 beneracioa eta deboccioa; bada au gucia  
 eguiñarequin, asco irabacico dezue  
 Jaungoicoaganaco; ceña dan ala beretzat  
 nola Iziar-co Virjiñaren deboto gucientzat,  
 Aldazabal jannaren obraren laburtzalleac,  
 deseatzan duan premio edo sari bacarra.

Obracho au osatzeco, eta orren frutuac  
 eraguilleagoac eta prochugarriagoac izan  
 ditecen, etzayo eguilleari ezer obeagoric  
 iduritu, emen paratzea baño, Tolosan  
 1866.<sup>an</sup> arguitara eman zan Bederatziurrena,  
 D. Pedro Jose Aldazabal eta Murguiac  
 1768.<sup>an</sup> eusqueraz escribitu zuanetic  
 erderara itzulia beze!a; coroitzen duela  
 azquenic,

Iziar-co Ama Virjiña chit garbi beragnaco cantaldi autuen da egoquien batzuequin.



## AMA VIRJIÑA IZIAR-COAREN BEDERATZIURRENA.

*Garayar illaren lendabizico Igandearen bezperatic emango zayo asiera motu onetan.*

*Belaunico jarriric, Gurutze Santuaren señaletan eguingo due bederatziurren onen asieraraco, eta onen ondoren esango due Acto Contriciocoa egunero.*

*Egun guztietan bederatziurren onec diranen artean, eguingo due limosnachoren bat, edo beste obra onen bat: ta bederatziurren onetan egunero lendabizian esangoda Acto Contriciocoren ondoren seguitzen dan Oracio au.*

### Bederatziurrenaren egunoroco ORACIOA.

Ceruetaco Erreguiña, Jaungoicoaren Ama, Aingueruen eta guizonen consue-

loa; baldin Jaincoaren gloriaric andie-  
neraco, zure onraraco eta nere anima-  
ren probechuraco bada, nie escatzen  
dedana bederatziurren onetan, alcanza  
eguidazu zure Seme Jaunagandic graci  
ar; eta bestela, zuzen ezazu nere ora-  
cioa, eta esca eguiozu nere Jaunari gue-  
yen eta onen dagoquidana, bere hon-  
raraco, eta nere animaren oneraco:  
Amen.

¡O Maria, Virjiña guztiz Santa, Jaun-  
goicoaren Ama, zeruetaco eta lurreco  
Erreguiña! Gure Ama gozo eta eztitsua,  
zure Imajiña gure oneraco ipiñi nai izan  
zenduana munduan, auturic onelaraco  
Iziarco erri doatsua; zure lendabicico  
izatean pecatubague sortua; doatsua ze-  
re Jayotzan; umilla Presentacioan; guz-  
tiz garbia Ezcondutzean; Graciaz betea  
zere Anunciacioan; arretazcoa Bisitacio-  
an; obedientea Purificatzean; Dolorez  
betea zure Jesus Jaunaren Pasioan; Glo-  
riaz jancia cere Ceruratzean, eta Coroa-

cioan. Ona, Andrea, non daucazun zere  
 oñ sagraduetan auspez jarriric, zure de-  
 botoen arteco chiquiena. Nic daucat at-  
 segiñ andi bat, nere Jaungoicoaren Ama  
 santa; cerren aibeste mesederequiñ  
 apaindu zinduan Irutasun chit Santuac;  
 empeñatzen zala Aita bere indar ca-  
 bu-baguearequin, Semea Jaquiunde e-  
 cin guéyagorequin, eta Espiritu Santua  
 amorio azquenbaguearequin zure gra-  
 cietan; ematen zizuela, Jaungoicoaren  
 Ama izateco bear zenduan Santutasun  
 guztia. Gracia, doai, ta misterio oec-  
 gatic escatzen dizut, nere Ama gozoa,  
 alcanza deguidazula, bicitzea beti zure  
 Semearen gracion, seguitzen diedala  
 virtute guztiai, batez ere gueyena a-  
 guertzen naizala, araco amabi aetan, ce-  
 ñetan zu gueyena ezagutua izan ciñan  
 munduan, eracusten diguten becela  
 araco amabi izar eder, zure coroa a-  
 paintzen duten aec, zeñetan adorazot-



zen zaizcan; alcanza ditzadan oecgatic, zuri jarraituaz, eta zu bitarteco zaitudala, eriotza on bat, Jesus maitearen Biotzean, berac nai duanean; eta bederatzuurren onetan escatzen dizudan mesedea, Jaungoicoaren gloriarie andienaraco bada. Amen.

*Oracio au esan ezquero bucoitzac isilic dagoala dempora labur balean, escatzen dio Ama maiteari conbeni zayona biotzarequiñ: eta guero erre:atuco dira iru Ave Maria, eta oen ondoren eguneco Oracion, modu onetan.*

## LELENGO EGUNECO

### Oracioa.

Virjiña garbi, Jaungoicoaren Ama, Aingueruen eta guizonen Erreguiña Santa, graciaren edertasunetan beca-tuaren loi-gabe cere lendabico izatean sortua. Atseguñ andi bat daucat, nere Ama gozoa, zu bacarric antu zindualaco Jaunac doay onequiñ, izan zindezen

bea becelacoa Irutasun chit Santuco bigarren personarentzat, zugañ guizon eguin zedin berezia, eta orregatic Jaungoicoaren Ama deitua: nic escatzen dizut zure Sortze edo Concepcio garbiatic, eman daguidazula nere animaco, eta gorputzeco garbitasuna, eta bederatziurren onetan escatzen dizudan mesede, zure honra, eta gloriatic andieneco. Amen.

*Orañ esaten edo cantatzen dirala Gozo-cantac, eta oen acabarac esaten dira antifona, eta oracio aspian dauden oec egunero.*

Sancta Maria, succurre miseris, iuva pusillanimes, refove flebiles, ora pro populo, interveni pro clero, intercede pro devoto fæmineo sexu: sentiant omnes tuum iuvamen, quicumque celebrant tuam sanctam commemorationem.

Ÿ Ora pro nobis, Sancta Dei genitrix.

Ŕ Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

Concede nos famulos tuos, quæsumus, Domine Deus, perpetua mentis, et corporis sanitate gaudere; et gloriosa Beatæ Mariæ semper Virginis intercessione à præsentis liberari tristitia, et æterna perfrui lætitia. Per Christum &.

*Bigarren egunean, lendabicioan becela, eguñie gurutze santuaren señaletan, eta Acto contriciozcoan, esango da lendabicio dagoan egunero oracioa, eta onen ondoren eguingo da an dagoana, lelengo egunean becela, eta guero esango da bigarren eguneco Oracioa.*

### BIGARREN EGUNECO Oracioa.

Virjiña doatsua, Jaungoicoaren Ama, Aingueruen eta guizonen Erreguñia, zure Jaiotzarequin ceruac eta lurra, Aingueruac eta guizonac, poztu cinduana; Egunsenti eder, Justiciaco Eguzqui, Je-

sucristo mundura ecarri ciguzuna, argui eguiteco ceruraco bidean dabilztanai, eta edertasunez, eta gloriáz ceruan jancitzeco, Jannaren borondatea eguiten bizita, beren eriotzan justu arquitzen diranac. Atseguin andi bat daucat zure doay, eta edertasun graciazco oriez guciáz, ceñacquin zure Semeac eguzqui Jaungoicozcoac becela, jayotzan janci zinduan. Eta escatzen dizut zure zorioneco jayotza orregatic, nere animarentzat graciáraco etorrera añ arguia, eta segurua, cein da ñoiz ere erori eznaitequean pecatuaren loyan, eta bederatziurren onetan escatzen dedan mesedea, conbeni bada, zure honra eta gloriaric andieneraco. Amen.

*Gañeronz ean lengo egunetan becela.*

**IRUGARREN EGUNECO**  
**Oracioa.**

Virjiña autua, Jaungoicoaren Ama, Aingueruen eta guizonen Erreguiña, Jerusalengo Templo Santuan iru urteco aurchoa ciñalaric aguertua, eche santu artan zere virtuteacquin eracusten cie zula, icusten cinduen guztiai, bicimodu Jaungoicozcoa, guero zure Semearen etorreran serbitu cezaten graciaco Temploetan ejemplotzat, beren bicitzac Jaunari consagraturic. Atseguin andi bat daucat ¡O Virjiña autua! Zuc gracia, eta birtute andi parebague oec mercei izanaz, Templo Santu artan eguiñ cinduan mirariacgatic; eta escatzen dizut Presentatze gozo argatic, eman deguidazula, izatea nere anima Irutasun chit Santuaren Templo bici bat, nere bicimoduco obligacioac cumplitze-

co, eta bederatziurren onetan escatzen dizudan mesedea, baldin combeni bada, Jaungoicoaren honra, eta Gloriarie andieneraco. Amen.

## LAUGARREN EGUNECO

### Oracioa.

Virjiña guztiz garbia, Jaungoicoaren Ama, Ainguernen eta guizonen Erregiña, San Jose zure Esposo garbiarequin ezcondua, ceñac zurequin bicitzetie eta zure izcuntza gozotie irichi izan zuan graciaren, birtuteen eta doayen gueitzea: atseguin andi bat daucat ¡Oh Virjiña garbia! Icosteaz zure alcarganatzetic, famili bat añ baquetsua, amodiotsua eta garbia: non da iduritzen citzadan, ceratela moduren batean gloriaco doatsuac, eta Jesus jayo ezquerro, guizonezco Irutasun bat lurrean. Nic escatzen dizut Esposatza garbi oecgatic,

nere oroimen, adimentu eta borondatea, Irutasun chit Santuagan beti iduquitzeo gracia, eta bederatziurren onetan escatzen dizudan mesedea, baldin conbeni bada, Jaungoicoaren hourea, eta gloriarie andieneraco. Amen

## BOSTGARREN EGUNERACO

### Oracioa.

Virjiña graciaz betea, Jaungoicoaren Ama, Aingueruen eta guizonen Erregiña, ceñi Irutasun chit Santu guziac bialdu eizun San Gabriel Goy-añguerua, zori oneco bialquinde arequin zure borondatearen baimenaren billa, Jaungoicoaren Semea zure sabelean guizon eguiteco. Atseguin andi bat daucat; O Virjiña graciaz betea! izateaz zu Jaungoicoaren Semearen Ama, ta moduren batean doaietan cabugabea; eta escatzen dizut bialquinde gozo onegatic, iri-

chi deguidazula cere Seme Jaunagandic, nere anima graciaz betetzea; onela Jesus maiteac arqutu dezan nere biotzean ostatu garbi bat, batez ere Aldareco Sacramentu Santua artzen duanean; eta bederatziurren onetan escatzen dizudan mesedea, baldin conbenibada, Jaungoicoaren honra, eta gloria-ric andieneraco. Amen.

## SEIGARREN EGUNECO

### Oracioa.

Virgiña amorioz betea, Jaungoicoaren Ama, Aingueruen eta guizonen Erreguiña; cere Seme Jesus sabelean zenduala bion borondatearequin igoric Judeaco mendietara, cere lengusu Santa Isabel bisitatzera, onen echean egon cñana; betetzen ziñuzela graciaz amasemeac. Atseguñ andi bat daucat ¡O Virjiña guztiz amoriotsua! bisita san-



tu onetan eracutsi cinduan zure bertuteaz; nola diran humiltasuna, obediencia eta caridadea; eta escatzen dizut oen bitartez, eracutsi deguiozula nere animari humiltasuneco, obedienciaco, eta caridadeco bidea, irichi artean oec mereci duten azquenera; eta bederatziurren onetan escatzen dedan mesedea, baldin conbeni bada, Jaungoicoaren honra, eta gloriarie andieneraco. Amen.

## ZAZPIGARREN EGUNECO

### Oracioa.

Virjiña guztiz esanguiña eta obediente, Jaungoicoaren Ama, Aingueru eta guizonen Erreguiña; cere Semearen jayotzatic berroquei egunac cumplituric, aguertu ciñana Jerusalengo Temploan, leguea cumplitzeagatic; esquintzen cenduela beste doayen artean zere Virjiñ sabeleco Frutu bedeincatua, eta guel-

ditzen ciñala Virjiña garbi, loyaren queriza-gabe, Semea eguiñ baño len, eguitean, eta eguin ezquero; ez cerren iñoiz-ere izan cenduan loiric-ecer garbi-bearric; baicic cerren eguin nai izan cenduan legueac aguintzen zuana. Atseguin andi bat daucat ¡O Virjiña guztiz esanguiña eta obediente! cerren cere Seme Jaunac eman cizquitzun graci andi oec, eta cerren misterio onetan eracutsi ziñuzcun birtute andiac. Escatzen dizut bada, eman deguidazula batez ere, obediencia bertutea, zure Seme Jaunaren leguea gordetzeco, eta nere bicimoduco obligacioac cumplitzeco; baita-ere bederatziurren onetan escatzen dedan mesedea, baldin conbeni bada, Jaungoicoaren honra eta gloriarie andieneraco. Amen.

## ZORTZIG ARREN EGUNECO Oracioa.

Virjiña dolorez betea, Jaungoicoaren Ama, Aingueruen eta guizonen Erregiña; zure Semearen gurutzepean iraupen sendo andi batequin egon ciñana, munduaren erospen edo Redencioco obra andi ura eguin zuanean, penaz eta dolorez zere biotza urtutzen citzazula; baña ala ere, artutzen guinduzula zure semetzat zere discipulu amatuaren personan. Erruquitzen naiz ¡O Virjiña dolorez betea! zure pena eta miñ oriezaz; eta orien bitartez escatzen dizut, artu nazazula cere seme eta mendecotzat, eta zure debocioan beti izateco; eta eman deguidazula gracia, cere mendetic ez irteteco, baita ere bederatziurren onetan escatzen dizudan mesedea, baldiñ conbeni bada, Jaungoicoaren honra, eta gloria andieneraco. Amen.

## BEDERATZIGARREN EGUNECO

### Oracioa.

Virjiña gloriáz betea; Jaungoicoaren Ama, Aingueruen eta guizonen Erreguiña; ceñaren eriotza izan zan eriotza amorezco bat, egaca cerura igotzeco Aingueru eta Serafiñacquin batean, biurtzen ciñala irugarren eguncan cerutic lurrera Aingueru ascorequin batean, sartutzeco berriro anima gloriosoa cere gorputz eder artan, eta igotzeco cerura gorputz eta animaz cerutar-guztiacquin gloriara; non arquitzen ceran cere Semcaren escuyaldean, zorioneco guztiac baño gloria andigoarequin becticotasun guziraco. Atseguin andi bat daucat, ¡O Virjiña gloriáz betea! Zure eriotza gozoaz, zure Ceruraco-igoera gloriosoaz, eta gloriaco corroatze goiorretzaz; eta escatzen dizut, iru zori di-

choso oen bitartez, nere eriotzaco zori-  
ona zure mendean; baita ere bedera-  
tziurren onetan deseatzan dedan mese-  
dea, baldiñ conbeni bada, Jaungoicoa-  
ren honra eta gloriarie andieneraco.  
Amen.

## GOZO-CANTAC

### AMA BIRJIÑA IZIAR-COARI

*Virjiña Iziar-cua,  
Izar eder munduan,  
Ama maitea, gugatic  
Erregutu Zeruan.*

1

Zu auqueratu zinduan  
Jaungoicoac Amatzat,  
Zori onean guretzat,  
Diña arqutu cinduan;  
Bestela lotu guinduan  
Luzbelec becatuan:

*Ama maitea etc.*

Munduco peligroetan  
Sartuta arquitzen dana  
Etortzen bada zugana,  
Garbi, bear dan moduan;  
Bestela ezin duana,  
Iristen du orduan:

*Ama maitea etc.*

Itsasoco ecaitzetan  
Zu zera argui Izarra;  
Onci guztien Amarra,  
Portura eman artean;  
Escatzen dizutenean  
Zeuri seme moduan:

*Ama maitea etc.*

Asco ezcondu penatue  
Ez dutelaco aurric,  
Uste guzia galduric  
Daudela tristaturic;  
Zugandican lograturic  
Goza dute frutua:

*Ama maitea etc.*

Frutua logratu arren,  
Cembait dira arquitzen,  
Alimentua billatzen  
Nun-nai alditequeen;  
Zu zaude oen guztien  
Laguntza seguruan:

*Ama maitea etc.*

Emacumeac erditzen  
Dauden zori-larrian,  
Campoan eta errian  
Cembat ditugu icusten,  
Añ ederqui libratutzen,  
Zure izena deituban;

*Ama maitea etc.*

Eri modu guztietan  
Zu zaitugu, Virjiña,  
Ama maite osaguiña;  
Ta animaco penetan,  
Zu atsegiña benetan,  
Daucagun estalduan:

*Ama maitea etc.*

Moro-en cate andiac  
Urratu izan dituzu,  
Baita libratu dituzu  
Sarri presondeguiac;  
Daude oen aguiriac,  
Emen zauden lecuan:

*Ama maitea etc.*

AMA BIRJIÑA IZIAR-COARI  
CANTAERA.

*Ave maris stella  
Agur it̃sasoco izarra.*

1

Izar ederren zoragarriya  
Euzki goyenen argiya  
Ama Virjiña Iziar-cua  
Zeru ta lurren eztiya:  
Pozaren pozaz zure anrrera  
Dator euscaldun erriya,  
Zugan bacarrie ur eta lurrez  
Daducalaco biziya.



Izar altuben Erregiña zu:  
Izar-goi orren erdian  
Zere-eguzki zoragarriya  
Agertu da bat-batian;  
Jainco Aitaren Seme bacarra  
Zugan gizondu danian,  
Argitu ditu, eta ipiñi  
Zeru ta lurra pakian.

;;Zeñ eder gero zure argiyaz  
Poztutzen diran zerubac,  
Eracutsirie gizonentzaco  
An jarri diran lecubac!  
Poztutzen dira ibar da mendi  
Ichaso ezin neurtubac:  
Eguzkipeco erri guziyac  
Zurekin daude poztubac.

Jakin nayean iñsazgizonac  
Portu-aldera noiz jira,  
Aztartzen ditu odei-zirricac,  
Izar-izarra begira;

Ala zugana gizon gajoac  
Oso biurtu bear dira,  
Mundu ontaco ecaitz-artetic  
Zeruratuco badira.

5

Galerna tzarrá iraulitzean  
Iñsaso zabal-gañian,  
Ur-ujoldeac bulza ta amilca  
Ontzi galtzeco zorian,  
¡Ama gurea! deitzen zaituzte  
Iñsaz-gizonac batian,  
¡Ama Birjiña! diote, pozac  
Dardaraz españ-artian.

6

Gure asabac irristatzean  
Iñsaso z boa-boaca,  
Ari oi ziran, Birjiña, zuri  
Sutumpaz agur dambaca:  
¡Ama Birjiña Iziarcua!  
Esan oi zuten leiyaca;  
¡Ama Birjiña Iziarcua!  
Zugana gatoz presaca.

Eta lambidez an zebiltzala  
 T̄salupan edo barcuan,  
 Jartzen baziran zerubac goibel,  
 Ujol-mendiac orruan,  
 Ta aize-samaldac ĩsistuz burruca;  
 Deitzen zuten, bai, orduan  
 ¡Ama Virj̄na Iziarcua!  
 Erregu sutu beruan.

Naiz eta senti turmoy-estanda  
 Ujol asarre tartian  
 Gora-pillatzen su ta ĩsimistac  
 Alcar burruca gorrian,  
 Zalapartaca ontzi gajoa  
 Urta ta apurtu nayian  
 Zuri, ¡Birjiña! deituric, zeuden  
 Pake-atsegin betian.

Ala gue ere bigurritzean  
 Ecaitz-irrintza<sup>1</sup>gogorra,  
 Su beltz-gorriyac purrustaturic<sup>2</sup>

1 El rugir de la tempestad. 2 Esparramando con impetu

Oñazcar-garrez izorra,<sup>1</sup>  
Puscatu nairic ontzi ta guizon,  
Irri-orroca ta amorra,  
Otoitz- zaiogun Birjiña Amari:  
Ez da izangò, ez, gorra.

40

Fede-gabeen bagada-pillac<sup>2</sup>  
Badatozkigu gerrara,  
Suleizetarren egiñalakin  
Gure animen contrara;  
Or-gatoz egan, Birjiña, zure  
Izar argien sutara,  
Eta zerorren Seme Jaungoico  
JESUS-EN Biotz bertara.

41

Nola dabillen ardi usaira,  
Ortzac igortzen otsoa,  
Gure animac irintsi-nairic  
Dabill Beltzebu gaiztoa:  
Baña, naicoa degu, Birjiña,  
Zuc jasotzea orpoa,  
Gu lagatzeco; eta orroaz  
Suleizeraño dijoa.

---

1 Preñado. 2 Montones de oleaje

Ortic-emendic estuasunac  
Gaituztenean jarraitzen,  
Eta besteli griña okerrac  
Biotz gaiñoa larritzen,  
Gure asmoen contra dirala  
Gizon gaiztoac jaiquitzen,  
Zure izena aitubarekin  
Soseguz gera gelditzen.

¡Ama! Ez utzi iñor irteten  
Erreljio-mempetic:  
Lege, izcuntza, oitura-onac  
Zuzendu zero-bidetic:  
Jarri gaitzatzu beti-betico  
Zu ta JESUS-EN aldetic:  
Gorde, bai, arren, Euskalerriya  
Erejiyaren gaitzetic.

¡Ama! zue dana badezakezu  
Jainco JESUS-EN escutic:  
Libra gaitzatzu ecaitz-artean  
Eriotz larri estutic:

Cay obeenera zuzen gaitean  
Zure laguntzaz ordutic,  
Zere mantuco izar batekin  
Argi, bai, arren zerutic.

43

Argi gaitzatzu, ¡Izar Mariya!  
Zeruetaco bidean;  
Ibill-gaitezen JESUS Beraren  
Sinismen argui betean,  
Fede santu nu egiñ onakin  
Guregan eldu artean,  
Gero betico jargoyetara  
Zurekin igo gaitean.

*Alabiz. J. I. A.*

# BIRGIÑA SORTZEZ OSO-GARBIARI.

1

**P**ioren bidez, Ama,  
**I**goric ederki,  
**O**ñaz zapal-diozu  
**B**uruba Luzbeli,  
**B**idan zina ala beti  
**D**ana-dana garbi,  
**E**rregiñ zerucoa!  
**N**eñec gaur ez daki?

2

**L**egoi Juda-coaren  
**E**scuz indartua,  
**G**aur zapaldu diozu  
**O**impean burua  
**I**ran-suge arroari,  
**O**Birgiñ dontsua!  
**N**ore ez dizu emango  
**A**gur gozatsua?

J. I. A.

# ITSASOCO IZAR AMA BIRJIÑA

EDO

«AVE MARIS STELLA» EUSKERAZ.

1

¡Agur it̄sasoco izar  
Ama Jaincozcoa!  
Beti-beti Birjiña,  
Ta ate zerucoa.

2

Arturic Gabriel-en  
Agur-on maiteac,  
Pakez sendo gaitzatzu  
Eba-ren umeac.

3

Ascatu pecatutic;  
Argitu begiac;  
Kendu gaitzac, escatu  
On guzti guztiyac.



4

Amatzat ager zaitez:  
Ar-bitza erreguac,  
Zugandi jayo zaigun  
Seme Jaungoicuac.

5

Birjiñ paregabea,  
Garbi ta oñsan zera,  
Culpac keñdu, ta iguzu  
Garbitasun bera.

6

Bizi gaitezen garbi  
Bide seguruan,  
Jesus icusi arte  
Betico zeruan.

7

Onra Aita, Seme, ta Jaun  
Izpiritu-ari  
Onore bat ber-bera  
Iru personari.  
Alaše izan bedi.

J. I. A.

AGUR-ONA EDO SALBEA  
AMA BIRJIÑA IZIAR-CUARI.

1

¡Agur it̄sas-gizonen  
Izar it̄sit argia!  
¡Agur it̄sas-erz oyen  
Lore edergarria!  
¡Agur Euskaldun danen  
Eguzki garbia,  
Altiste<sup>1</sup> Iziar-co  
Birjiña Maria!

2

Agur, Ama Birjiña  
Zeruco Erregiña,  
Agur, gure bizitza,  
Uste ta atsegiña,  
Errukizeo jargoya,  
Gure poz erpiña,  
Egin gaitzatzu zure  
Mesedeen diña.

---

1 Perla.

Erbestetuta gaude  
Eba-ren umiac  
Deyezca zuri alīšarie  
Biotz ta begiac;  
;Ibar negarrez-coan  
Ona-emen utziac!  
Zu-opa zaitu gure  
Arnas-inziriac.

;Ea bada! zerala  
Gure bitarteco,  
Itzul-gugana, errukiz  
Gu begiratzeco:  
Egiñ gero mesede  
JESUS icusteco;  
Zure Frutu eder ori  
Beti maitatzeco.

;Birjiñ Ama Maria,  
On da biotz-bera!  
Atoz, bai, atoz, arren,  
Gu salbatutzera:

Bada guregatican  
Zuc erregutzera,  
Cristoren agninduben  
Diña egingo-gera.

Alabiz. J. I. A.

IZIAR-CO BIRJIÑARI  
CANTATSOA

*Agur Iziar-co*  
*Birjiña ederra*  
*Agur. Ama maite*  
*Itsasoco Izarra.*

1

Penaz dagoena  
Zugana dijoa  
Biral dezayozuu  
Atsegin gozoa.

2

Zugana dijoaz  
Iisuac, eriyac,  
Atsecabedunac,  
Miñ diran guziyac.

3

Dakite zerala  
Guziz maitatsua  
Zerala gizonen  
Ama gozatsua.

4

Zerala trizturaz  
Daudenen gozoa,  
Zerala pozaren  
Iturri naroa.<sup>1</sup>

5

Argiya zerala  
Illun daudeneztat,  
Tsit errukitsua  
Pecatarientzat.

6

¡Ama! zugañ gu-re  
Gatoz gaur bilduric,  
Eskeintzera gure  
Biyotzac pozturic.

7

Zuregana gatoz  
Danoc, escatzera

---

1 Abundoso.

Begira zazula  
¡Bay! ¡Ama, lurrera.

8

Etsaiac arroric  
¡Ay! datozenean  
Gorde gaitzatzun ¡bai!  
Zure mantupean.

9

Erortzen dan eran  
Intza zelayetan,  
Grazia eror dedin  
Gure biotzetan.

10

Ongi bizirican,  
Egunen batean  
Icusi zaitzagun  
Zeru ederrean.

C. Echegaraic.

# AMA BIRJIÑA-REN CANTALDIYA

EDO

## MAGNIFICAT EUSKERAZ.

(Luc 1, 46)

1

Nere animac otsanditzen da  
Alabatutzen du Jauna,  
Pozturic Jainco-Osagillean  
Nere izpiritu-barruna.

2

Zeren ezarri zituben nigan  
Bere Jaincozco begiyac,  
Zorioneco esango naute  
Ondoren jende guztiyac.

3

Bada egin-dit ALTSUBA danac  
Mesede goyen-goyena;  
Bedeinca beza mundu-guziac  
Santu dan bere Izena.

4

Erruki-ona ondorenguai  
Mundu-dan arte munduba,  
Bere-amorez gorde badute  
Jaincozco bildur santuba.

5

Azaldu digu Cristoren bidez,  
Bere besoco indarra,  
Banaturican biyotzelatic  
Buru-arroen utzarra.<sup>1</sup>

6

Almen aundico asco zituben  
Beren aukitic astindu,  
Eta biotzez becoi oīsanac  
Alīsatu eta goitindu.

7

Onez-asetā utzi zituben  
Gose-beartsu zirenac,  
Bialdurican ezerīso gabe  
Aberats ondo zeudenac.

8

Oroitu zan-bai errukimenaz,  
Oso artutzen zubela,

---

1 Utzarra, naderia, vanidad.



Israel-darren erri maitea,  
Bere seme bat bezela.

9

Nola leendanez esan-bai-zien  
Gure asabac zianari,  
Abraan-i ta bere semedi  
Beti-betico dianari.

*J. I. A.*

## BIOTZALDI AMORIOZCOAC AMA BIRGIÑARI

Zembat nai nuke. ¡Ama Birjiña,  
Ama gozo chit maitea!  
Zure amorez ñingar-egiñic  
Biotza kiscaldutzea....  
¡O nere eztiya! ¡Nere Erregiña!  
Naizan guztia suturic  
¡Ay! banegoke zure maitetzan  
Aingueru-danac gaiñduric,  
Asma ditezken modu guzitan  
Zu amatutzen urturik!

Doatsuba Zu zere Garbite  
Beti-betico guzian;  
Bada alaitzen da Jaincoa bera  
Añ edertasun aundian  
Zeruco erregiñ paregabia,  
Birjiña danen loria...!  
Gaurti benetan eskintzen dizut  
Biotz ta anima neria;  
Begira errukiz, ez utzi ni, arren,  
¡O Ama zoragarria!

## IZIAR-ERA.,. IZIAR-ERA...

İTSAS-CANTA.

*Boa, boa, guazen ara,  
Iziar-co cayera,  
Anduz ondoco Izarra,  
Birjiñ Ama ecustera.*

Zembat-aldiz itsasoa  
Jaiki zait ondatzera

Aimbat-aldiz Birjiña zait  
Etorri gordetzera....¡Bai! Bai!  
*Boa, baa, barcutsoa*  
*Guazen Iziar-era*

Birjiña da gizonentzat  
Zorion ta argiya,  
Gure Ama, ezfi-gozo,  
Poz danen iturriya.

Dala Jainco Berarentzat  
Dana maitagarriya,  
Da gure altiste bacar,  
Iziarco Mariya....¡Bai! ¡Bai!  
*Boa, boa, icustera*  
*Iziar-co Mariya.....*

**AMA BIRJIÑA IZIAR-CUARI**  
**ERREGUALDITSOA**

Itsas da lurren Izar-ederra,  
Jaunaren Ama Maitia!  
¡Gure Ama ta gozotasuna!  
Bitarte jarri zaitia;

ure begiac Jaincoagandu,  
Erregu beroz betia;  
Iriñsirican orain grazia,  
Gero zeruco gloria.

**AMA BIRJIÑA IZIAR-CUARI**  
**ESCAERA.**

¡Oh gure Ama maitea, Birjiña. Iziar-  
cua, Jainco-Beraren Ama, eta zeruco  
Erregiñ guzialtsua! Zuregana-gatoz la-  
guntza, mesede ta grazien eske, anima-  
co ta gorputzeco etsayetatic libra gait-  
zatzun. ¡Oh Ama erruki utsa! Jaincoa-  
ren Ama bera izateraño igo bazera, gu-  
ri zere guzialtasunarekiñ laguntzeco  
izandu da. Begira bada guri; eta mun-  
du ònetaco iñsas-ecaitzen artean izar  
eder, eta zerura iristeco gidari izan zai-  
guzu. Sinismen bizi, uste seguru eta  
caridade egizazcoan gorde gaitzatzu.

Eliza Ama Santa ta bere serbitzariac  
etsayen erasoetatic escudaitzatzu; zure  
bitartez biotz on batekin, betico zu ala-  
batzera zeruratuac izan gaitezen-ar-  
tean. Bai, arren. ¡Oh Ama Birjiña Iziar-  
cua! ¡Oh Ama biotz bera! ¡Oh Ama er-  
ruki-utsa! ¡Oh Amodio ederraren Ama  
Jaincozcoa! Ala izan dedilla.

## AZKENA.



ZENBAT ITZ ETA LETRA DITUGUN IŞURI  
AIMBAT EUNCADA ONORE, BIRJIÑ AMA, ZURI.

# ARKI-BIDEA.

Hitz-aurrea. . . . .	5
1. <sup>o</sup> BURUA. Aguerpenaren condaira edo historia, lecuaren gañean itz batzuen ondoren . . . . .	5
2. <sup>en</sup> BURUA. Aguerpenaren dembora. . . . .	9
3. <sup>en</sup> BURUA. Lelengo eliza alchatzean gertatu ziran milagroac eta eguiñ diran eliza onen berritzeac . . . . .	14
4. <sup>en</sup> BURUA: Mariñelen eta itsastarren Ama Virjiña Iziar-coaren cofradia elit aneñacoa. . . . .	20
5. <sup>en</sup> BURUA. Ama Virjiña Iziar-coaren bi-tartez eguiñ diran milagroac . . . . .	27
Ama Virjiña Iziar-cuaren bederatziurrena. . . . .	40
Gozo-cantae Ama Virjiña Iziarcuari . . . . .	55
Ama Virjiña Iziarcuari Cantacra. . . . .	58
Ama Virjiña sortzez oso-garbiari. . . . .	65
Iñsasoco izar Virjiña, edo <i>Ave maris stella</i> Euskeraz . . . . .	66
Agur-ona edo Salbea Ama Virjiña Iziarcuari. . . . .	68
Iziar-co Birjiñari Cantachoa . . . . .	70
Ama Birjiña-ren Cantaldiya edo <i>Magnificat</i> Euskeraz. . . . .	75
Biotzaldi Amoriozcoac Ama Birjiñari. . . . .	75
Iziar-era Iziar-era Ichas-canta. . . . .	76
Ama Birjiña Iziar-cuari erregualdichoa. . . . .	77
Ama Birjiña Iziar-cuari escaera . . . . .	78













A.T.

13